



Giza Eskubideen Aldarrikapen
Unibertsalaren 60. urteurrena
ospatzeko Euskadiko kanpaina

Euskal konpromisoa giza eskubideen alde

World Kafea

Arantzazu, 2008ko urriaren 11

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 60. urteurrena ospatzeko prestatutako euskal kanpainaren baitan pasa den urriaren 11n World Kafea antolatu zen Arantzazun. 400 lagunek hartu zuten parte World Kafe horretan.

World Kafea parte hartzeko metodo interaktiboa da, gai jakin bati buruz hitz egiteko eta ondorioak ateratzeko sortua. Parte-hartzaileek lauzpabost laguneko talde txikietan hitz egiten dute, mahai baten inguruan, eta 15-20 minutuz jardun ondoren mahaiz aldatzen dira beste zenbait solaskiderekin beste zenbait gaietaz aritzeko.

Arantzazuko World Kafearen gaia giza eskubideen ingurukoa izan zen, eta hiru txandatan jorratu ziren eztabaidagaiak honakoak izan ziren:

-Zein esanahi praktiko eta zehatz dute zuretzat giza duintasuna, bizitzeko eskubidea eta giza eskubideen zatiezintasuna bezalako kontzeptuek?

-Zure esperientzia pertsonaletik eta sozialetik begiratuta, zein erlazio izan beharko lukete giza eskubideek immigrazioarekin, bazterketarekin, marjinazioarekin eta abarrekin?

-Nola gauzatu behar da, orain eta hemen, giza eskubideen aldeko gure konpromisoa?

Ideia garrantzitsuenen laburpena

Segidan, ondorio moduan, 85 solasaldi-mahaietan aritu ziren 400 lagunek adierazitako ideia garrantzitsuenen laburpena jaso da:

1. Pertsona guztiak gara duinak. Behin eta berriz gogora ekarri beharreko oinarri funtsezkoena da horixe, izan ere, giza duintasuna giza eskubideen oinarria da. Hori dela-eta pertsona guztiak ditugu eskubideak eta errespetua zor zaigu.
2. Giza eskubideak etika edukiz janzteko modu konkretua dira. Unibertsalak izateko duten nahiak egungo munduan lehentasuna den etika globalaren beharra islatzen du.
3. Gobernuek giza eskubideak bermatu behar dituzte, eta eurak izan behar dira horiek betetzen lehenak. Askotan, ordea, kontrakoa gertatzen dela salatu beharra dago. Herritarrek ardura bikoitza dute. Alde batetik, eskubideak defendatzea eta babesaraztea eta, bestetik, beren jarreraren eta eguneroko jarduteko moduen bidez, giza eskubideak errespetatzeko kultura barneratzea.
4. "Edukitzea" "izatea" baino garrantzitsuagoa eta "beste" irudi zehaztugabea den gizarte materialista, kontsumista eta egozentriko batean bizi gara; aberastasuna eta pobrezia, luxua eta bazterketa, normaltasuna eta indarkeria eta erosotasuna eta justiziarik eza elkarrekin naturaltasunez bizi diren mundu batean. Testuinguru anbiguo honetan giza eskubideak eta giza duintasuna arriskuan daude beti. Premiazkoa da egitura soziopolitikoaren berrikuntza sakona egitea.



Giza Eskubideen Aldarrikapen
Unibertsalaren 60. urteurrena
ospatzeko Euskadiko kanpaina

5. Herritarrek giza eskubideen lehentasun-beharra barneratu behar dugu. Ezin dugu horiek urratzea ezinbestean onartu. Beharrezkoa da jarrera aldaketa. Premiazkoa da herritarren aldetik ausardia giza eskubideen urraketak salatzeke. Gai publikoetan gizartearen parte-hartze aktiboa eta kritikoa oinarritzko tresna da sistema demokratikoaren benekotasunerako.
6. Pertsona askoren eskubideak urratzen dira beren jatorriagatik, erlijioagatik, gaitasun murriztuagatik, sexu-joeragatik... Desberdina dena mehatxu bezala bizi dugu, beldurra ematen digu eta hura mespretxugarritzat jotzera garamatzaten aurreiritziak eraten ditugu. Giza eskubideekin konpromisoa hartzeak giza ausardia eskatzen du desberdina dena onartzeko eta errespetatzeko ezezik beregana irekitzeko ere.
7. Hezkuntza giza eskubideentzat eremu estrategikoa da. Hezkuntza kritikoa eta humanista behar dugu. Edozein desberdintasunen eta egoeraren gainera, giza duintasun berberak batzen gaituela konturaziko diguna, etikan elkargune unibertsala bilatzen lagunduko, eta sufritzen duten eta modu injustuan hartzen ditugun lagunengana elkartasunez gerturatuzera bultzatuko gaituena.